

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saila

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko irailaren 6an hartutako erabakiaren laburpena: horren bidez, Gasteizen lan-kontratazioa sustatzeko diru-laguntzak emateko VII. programaren deialdia onesten da, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2019ko ekitaldiko laguntza deialdiaren barruan (2019/SUBAYU0007 dosierra)

BDNS(Identif.):472941

Dirulaguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/GE/> eta Gasteizko Udalaren webgunean <http://www.vitoria-gasteiz.org> kontsulta daitezke.



Lehena. Onuradunak.

Diruz lagun daitezkeen jarduerak Gasteizko udalerriko lantoki batean egiten dituzten enpresa edo erakundeak, edozein delarik ere beren forma juridikoa, baldin eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile gisa izen emanda dauden eta kontratazioaren aurreko sei hilabeteetan gutxienez Gasteizko udalerrian errolatuta egon diren langabetuei lan-kontratua egiten badiete, eta horrek enpresak zuen batez besteko plantila osoaren gainean enplegu sorkuntza garbia badakar.

Bigarrena. Xedea.

Gasteizko udalerrian ohiko lan-merkatuko lanaldi osoko nahiz partzialeko kontratazioa sustatu eta erraztera zuzendutako laguntza ekonomikoak emateko baldintzak arautzea norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko.

2019ko martxoaren 26tik 2019ko urriaren 30era arte egindako kontratazioek jaso ahalko dute laguntza.

Laguntzen kopurua mugatua izango da: bi enpresa bakoitzeko; gizarteratze enpresek hiru kontratu ere egin ahalko dute.

Hirugarrena. Oinarriak.

2018ko abenduaren 28an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren 2019rako diru-laguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak (2019ko otsailaren 19ko ALHAO, 19. zenbakia), eta 2019ko irailaren 6an, berriz, laguntza horien Gasteizko udalerrian lan-kontratazioa sustatzeko laguntza ekonomikoak emateko deialdia ildoan. 2019. urtea.

Udalaren webgunean <http://www.vitoria-gasteiz.org> eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Laugarrena. Zenbatekoa.

Laguntza deialdi honek milioi bat ehun mila eta hamar euroko (1.110.000,00 euro) zuzkidura du. Horietatik 4.874,68 euro, 2019ra luzatutako udal aurrekontuko eskualdeko plana-udalaren ekarpena izeneko 0823.2411.480.20 partidaren kontura izango dira, eta 1.105.125,32 euro, berriz, 2019ra luzatutako aurrekontuko eskualdeko plana- Lanbideren ekarpena izeneko 0823.2411.480.15 partidaren kontura.

Laguntzaren gehieneko zenbatekoa 6.000,00 eurokoa izango da, sei hilabeteko edo hortik gorako lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko, edo lanaldiaren edo lanean egindako denboraren arabera, lanaldi partzialeko kontratazioak badira. Laguntzaren azken zenbatekoa ezingo da izan kontratatutako pertsonen soldata-kostuen eta Gizarte Segurantzakoen ehuneko hirurogeita hamabostetik (ehuneko 75) gorakoa, kontratu-amaierako kalte-ordainak barne.

Kontratuak DSBE jasotzen duten pertsonak, 35 urtetik beherakoak, iraupen luzeko langabeak, eta 55 urtetik gorakoak badira, laguntza 9.000,00 eurokoa izango da, edo lanaldiaren edo lanean egindako denboraren arabera. Kasu horretan, laguntzaren azken zenbatekoa ezingo da izan kontratatutako pertsonen soldata-kostuen eta Gizarte Segurantzakoen ehuneko 100etik gorakoa, kontratu-amaierako kalte-ordainak barne.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea.

Deialdia onesteko iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2019ko urriaren 30ean bukatuko.

Gasteiz, 2019ko irailaren 9a

Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUIY JÁUREGUI